

Otxarkoagako Institutuan euskara irakasten

Artikuluari jarri diodan titulua ikustean, Gabriel Arestiren *Jainkoa jai*o da *Otxarkoagan* izeneko ipuina datorkit gogotara. Eduki ere Gabrielen izena baidauka gure ikastetxeak.

Nagoen lekuan aurkitzea, euskararako agregatu oposaketara aurkeztetik dator. Noiz zabalduko ote dira irakasletzara sartzeko bide egokiagoak? Mereziko luke. Arrazoiak? Asko eta ugari. Noizbait egingo dut horretaz idazlantxoren bat. Hori ez konpontzeak, dena dela, konta ahala arazo ekarriko dio Gobernuari.

' Txurdinagara taxian joan beharra baduzu, gida'riak laster dizu galdera ea *maskulinova* ala /ememnora.zoazen. Neskenera zoazala diozunean, nekez falta zaizu adarjotze diplomatikorik. Gaur, aldiz, bietan ere neska-mutilak nahasirik ikasten dute.

Zer ematen duzu, baina? —Ba, euskarako maila guztiak! Erantzunak maiz sortzen du harridura. Ez da itxurosoa, agian, lehen maila irakastera itzultzea. Lehen mailan aritzea hazi gutxiagotzat hartuz edo. Denok jakin arren maisu ona hastapenetan dela beharrezkoen. O.H.O.etik euskara emanik helduko zaizkiguh uholdeak BUP.eratu arte, ez dugu haserako mailarik faltako. Euskara irakasten, 30 urte ingurutan langabezia ager-

tuko ez den antzera. C.O.U.n edo bilinguen —ikastolatik etorrien auletan— emateagatik daukagun ordu urritzeaz 18 klase-ordu betetzen ditut. Lehen urteko hiru unitate, haserakoak; bat 3.urteko, 3. mailakoa eta bat euskaldunei emana. Behe mailetan *Jaldi Hadi*; hirugarrenean *Hitz Egin*; euskaldunei, P. Goenagaren Gramatika, M. Zarateren Aztergaiak etab.

Jakin nahi duzu nola egiten dugun eguneroko klase ordua? Aula ladrilutuaren barruan, 40 ikasletako multzoa duzunean aurrean, berez-berez baztertzen dira metodologiaz ikasiriko teoriarik gehienak. Berrogeiren artean, esaldi bat denak batera errepika posible da, taldeka akaso, eta banaka ia sekulan ere ez.

Horrez gainera, erabat erdaldun diren familietako seme-alabekin ez dugu eta ezin dugu zigor girorik erabili. Bestalde, arrazoiak eta motibapenak ere eskuratu behar zaizkie, euskara gorrota ez dezaten. Gu, arlo honetan pozik eta baikor gabiltza, diren girokoak izanik, *begirunez* hartzen baitute euskara. Ba dira % 4/5 gogoz kontra dihardutenak, familia ere halakoa dutelako.

Betiere asignatura ez balitz, beste gai baten statusa ezbalu, kito, hori bai. Beraz, borondatea, motibapena, bai, baina suspensoak ateratzeko arriskua duen asignatura ere bai. 3. kurtsoan borondatezkoa da eta 15etik 4-5 etortzen dira; lehenengokoa, ordea, derrigorezkoa denez, denak. Idealak bai, egin-beharrak ere bai. Ni goizero, 7etan, abertzaletasunagatik baino lanera joan behar dudalako jeikitzen naiz.

Euskarari bizia emateko, girotzeko, euskararen jatorria, literaturaren historia, Olentzeroren kanta etab. eskolaratzen ditugu. Kaleak, tamalez, ia ezer ez du laguntzen eta.

Ez dut uste neurrigabekeriarik mintzatzen naizenik, 40tik 25ek oso ondo ikas lezaketela badiot. Zer pena eta bildur ematen diguten udako hiruilabeteak! Bazenikete zenbaterainoko atzerakada egiten duten!

14-15 urtetako mutil koskor eta neska oilanden klaseari pil-pil eusteko izerdia eman beharra bai ba dagoela! Beti zutunik. Ahozko literaturan diren antzeko imajina azkar eta bapateko teknika biziz, Grain errepika, berehala idatz, bapatean eske-

nifika, galde, erantzun... Bestela, amaigabeko kirie eleison-a bihurtzen da klasea.

Bigarren urtean dabiltzen bilinguekoei euskaraz ematen diet, Bilinguekoak deitzen dira, klaseak, erdal literatura ezik euskaraz hartu arren. Nik uste oso ondo dagokiela bilingue izena. Euskaraz ikasi izan dute eta ikasten dute, erdaraz dira mintzatzen. Noiz arte? Euskal kontzientzia praktikoaz jabetu arte, agian.

Baina, berez, zer argiagorik elebidun gizarterik ezin dela lortu frogatzeko? Araban erdara eta Bizkaian euskara eginez emango litzateken elebitasuna, adibidez, posible izan daiteke, beharbada, baina denok, gizarte osoa, elebidun?

Ikasleonean artean, maila ezberdinak daude. Etxean euskaraz berba egiten dutenei berehala igertzen zaie. Gaurkoz, Kirikino, Karmelo, Leioa, Basauri ikastoletatik heltzen dira. Erandion badaukate aurten BUP euskaraz ikasteko era, datorren urtean Basaurin ere bai seguru asko.

Irakasle euskaldunok kopuru handia osotzen dugu. Ez da euskara ematen duena bakarrik euskaldun, fisika, latin, ingeles, etab. ematen dutenek ere, euskaraz menperatzen dute beren gaia. Irakaslegoaren giroan, elkarrizketetan, bizi-bizi azaltzen da euskara.

Esan barik asko geratzen da, baina zehaztasun bereziak Ian konkretu honetan gabiltzanontzat gordetzen ditu, honenbestez ere aski da eta.

J. Luis Goikoetxea